

DEKRETUA/DECRETO

Espediente zk./ Expediente nº: 3031/2025

Bazterrean ezarritako zenbakia eta data dituen ebazpena/ Resolución con número y fecha establecidos al margen

Prozedura/ Procedimiento: Informazioaren segurtasunari buruzko politika eta araudia/
Política y normativa de seguridad de la información

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Ermuko Udala IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) sistemen menpe dago bere helburuak lortzeko. Sistema horiek arretaz administratu eta neurri egokiak hartu behar dira emandako zerbitzuetan tratatzen den informazioaren erabilgarritasunari, osotasunari edo konfidentziasunari eragin diezaieketen halabeharrezko edo nahitako kalteetatik babesteko.

Informazioaren segurtasunaren helburua informazioaren kalitatea eta zerbitzuak etengabe ematen direla bermatzea da, prebentzioz jardunez, eguneroko jardura gainbegiratzuz eta gorabeherei azkar erantzunez.

IKT sistemek babestuta egon behar dute eboluzio azkarreko mehatxuetatik, baldin eta horiek eragina izan badezakete informazioaren eta zerbitzuen konfidentziasunean, osotasunean, erabilgarritasunean, aurreikusitako erabileran eta balioan. Mehatxu horietatik defendatzeko, ingurune baldintzen aldaketetara egokitzen den estrategia bat behar da, zerbitzuak etengabe ematen direla bermatzeko. Horrek esan nahi du,

El Ayuntamiento de Ermua depende de los sistemas TIC (Tecnologías de Información y Comunicaciones) para alcanzar sus objetivos. Estos sistemas deben ser administrados con diligencia, tomando las medidas adecuadas para protegerlos frente a daños accidentales o deliberados que puedan afectar a la disponibilidad, integridad o confidencialidad de la información tratada a los servicios prestados.

El objetivo de la seguridad de la información es garantizar la calidad de la información y la prestación continuada de los servicios, actuando preventivamente, supervisando la actividad diaria y reaccionando con presteza a los incidentes.

Los sistemas TIC deben estar protegidos contra amenazas de rápida evolución con potencial para incidir en la confidencialidad, integridad, disponibilidad, uso previsto y valor de la información y los servicios. Para defenderse de estas amenazas, se requiere una estrategia que se adapte a los cambios en las condiciones del entorno para garantizar la prestación continua de los servicios. Esto implica que



Segurtasunaren Eskema Nazionalak eskatzen dituen gutxieneko segurtasun-neurriak aplikatzeaz gain, zerbitzuen prestazio-mailen etengabeko jarraipena egin behar dela, jakinarazitako ahultasunen jarraipena eta azterketa egin behar dela eta gorabeherai erantzun eraginkorra eman behar zaiela, ematen diren zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko.

Ermuko Udalak egiaztatu behar du IKTen segurtasuna sistemaren bizi-zikloko etapa bakoitzaren zati integrala dela, sistema sortzen denetik zerbitzutik kendu arte, garapen- edo eskuratze-erabakiak eta ustiapen-jarduerak barne hartuta. Segurtasun-eskakizunak eta finantzaketa-beharrak IKT proiektuetarako plangintzan, eskaintza-eskaeran eta lizitazio-pleguetan identifikatu eta sartu behar dira.

Ermuko Udalak prest egon behar du gorabeherak prebenitzeko, antzemateko, horiei erantzuteko eta horietatik erreuperatzeko, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuari jarraikiz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluen arabera.

se deben aplicar las medidas mínimas de seguridad exigidas por el Esquema Nacional de Seguridad, así como realizar un seguimiento continuo de los niveles de prestación de los servicios, seguir y analizar las vulnerabilidades reportadas, y preparar una respuesta efectiva a los incidentes para garantizar la continuidad de los servicios prestados.

El Ayuntamiento de Ermua debe cerciorarse de que la seguridad TIC es una parte integral de cada etapa del ciclo de vida del sistema, desde su concepción hasta su retirada de servicio, pasando por las decisiones de desarrollo o adquisición y las actividades de explotación. Los requisitos de seguridad y las necesidades de financiación deben ser identificados e incluidos en la planificación, en la solicitud de ofertas, y en pliegos de licitación para proyectos TIC.

El Ayuntamiento de Ermua debe estar preparada para prevenir, detectar, reaccionar y recuperarse de incidentes, de acuerdo con el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad.

En virtud del artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

1. Informazioaren segurtasun-politika onartzea, Ermuko Udaleko pertsona guztiek nahitaez bete beharrekoa.
2. Informazioaren segurtasun-batzordea eta informazioaren segurtasun-

1. Aprobar la política de seguridad de la información, que será de obligado cumplimiento por todas las personas del Ayuntamiento de Ermua.
2. Designar al comité de seguridad de la información y a las personas responsables del sistema de



sistemaren arduradunak izendatzea, eta haien rolak eta eginkizunak zehaztea.

3. Dekretu hau Ermuko Udaleko pertsona guztiei komunikatzea, jakinaren gainean egon daitezen eta bete dezaten.

Ermuan, marjinar adierazitako data horretan.

seguridad de la información , definiendo sus roles y funciones.

3. Comunicar el presente decreto a todas las personas del Ayuntamiento de Ermua para su conocimiento y cumplimiento.

En Ermua en la fecha en el margen indicada.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

AURKIBIDEA

1.	Onartzea eta indarrean sartzea.....	5
2.	Sarrera.....	5
3.	Irismena.....	5
4.	Xedea.....	6
5.	Arau-esparrua.....	6
6.	Oinarrizko printzipioak.....	7
6.1	Segurtasuna prozesu integral gisa.....	8
6.2	Arriskueta oinarritutako segurtasunaren kudeaketa.....	8
6.3	Prebentzioa, detekzioa, erantzuna eta kontserbazioa.....	8
6.3.1	Prebentzioa.....	8
6.3.2	Detekzioa.....	8
6.3.3	Erantzuna.....	8
6.3.4	Berreskuratzea.....	9
6.4	Defentsa-lerroak.....	9
6.5	Etengabeko zaintza eta aldizkako berrebaluazioa.....	9
6.6	Erantzukizunak bereiztea.....	9
7.	Gutxieneko eskakizunak.....	9
8.	Segurtasunaren antolamendua.....	10
8.1	Informazioaren Segurtasun Batzordea.....	10
8.1.1	Informazio-arduraduna.....	11
8.1.2	Zerbitzu-arduraduna.....	11
8.1.3	Informazioaren segurtasun-arduraduna.....	11
8.1.4	Sistema-arduraduna.....	12





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

8.1.5	Datuak babesteko ordezkaria.....	12
8.1.6	Idazkaritza Teknikoa.....	13
8.2	Izendatzeko prozedurak.....	13
8.3	Gatazkak konpontzea.....	13
9.	Informazioaren Segurtasun Politika berrikustea.....	14
10.	Datu pertsonalak.....	14
11.	Arriskuen kudeaketa.....	14
12.	Dokumentazioa egituratzea.....	14
13.	Informazioaren kalifikazioa.....	15
14.	Langileen betebeharrak.....	15
14.1	Ez-betetzea.....	15
15.	Hirugarren alderdiak.....	15
1.	Aprobación y entrada en vigor.....	17
2.	Introducción.....	17
3.	Alcance.....	17
4.	Misión.....	17
5.	Marco normativo.....	18
6.	Principios básicos.....	19
6.1	Seguridad como proceso integral.....	19
6.2	Gestión de la seguridad basada en los riesgos.....	19
6.3	Prevención, detección, respuesta y conservación.....	20
6.3.1	Prevención.....	20
6.3.2	Detección.....	20
6.3.3	Respuesta.....	20





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

6.3.4 Recuperación.....	20
6.4 Existencia de líneas de defensa.....	20
6.5 Vigilancia continua y reevaluación periódica.....	21
6.6 Diferenciación de responsabilidades.....	21
7. Requisitos mínimos.....	21
8. Organización de la seguridad.....	22
8.1 Comité de seguridad de la información.....	22
8.1.1 Responsable de la Información.....	23
8.1.2 Responsable del Servicio.....	23
8.1.3 Responsable de Seguridad de la Información.....	23
8.1.4 Responsable del Sistema.....	24
8.1.5 Delegado/a de Protección de datos.....	24
8.1.6 Secretaría Técnica.....	25
8.2 Procedimientos de designación.....	25
8.3 Resolución de conflictos.....	25
9. Revisión de la política de seguridad de la información.....	26
10. Datos de carácter personal.....	26
11. Gestión de riesgos.....	26
12. Estructuración de la documentación.....	26
13. Calificación de la información.....	27
14. Obligaciones del personal.....	27
14.1 Incumplimiento.....	27
15. Terceras partes.....	27





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

KODEA	BERTSIOA
ENS.01	1.0





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

1. ONARTZEA ETA INDARREAN SARTZEA

Informazioaren Segurtasun Politika hau alkatetza-dekretua sinatzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, beste politika batek ordeztu arte.

2. SARRERA

Ermuko Udala IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) sistemen menpe dago bere helburuak lortzeko. Sistema horiek arretaz administratu eta neurri egokiak hartu behar dira emandako zerbitzuetan tratatzen den informazioaren erabilgarritasunari, osotasunari edo konfidentziasunari eragin diezaieketen halabeharrezko edo nahitako kalteetatik babesteko.

Informazioaren segurtasunaren helburua informazioaren kalitatea eta zerbitzuak etengabe ematen direla bermatzea da, prebentzioz jardunez, eguneroko jarduera gainbegiratzuz eta gorabeherei azkar erantzunez.

IKT sistemek babestuta egon behar dute eboluzio azkarreko mehatxuetatik, baldin eta horiek eragina izan badezakete informazioaren eta zerbitzuen konfidentziasunean, osotasunean, erabilgarritasunean, aurreikusitako erabilieran eta balioan. Mehatxu horietatik defendatzeko, ingurune baldintzen aldaketetara egokitzen den estrategia bat behar da, zerbitzuak etengabe ematen direla bermatzeko. Horrek esan nahi du, Segurtasunaren Eskema Nazionalak eskatzen dituen gutxieneko segurtasun-neurriak aplikatzeaz gain, zerbitzuen prestazio-mailen etengabeko jarraipena egin behar dela, jakinarazitako ahultasunen jarraipena eta azterketa egin behar dela eta gorabeherei erantzun eraginkorra eman behar zaiela, ematen diren zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko.

Ermuko Udalak egiaztatu behar du IKTen segurtasuna sistemaren bizi-zikloko etapa bakoitzaren zati integrala dela, sistema sortzen denetik zerbitzutik kendu arte, garapen- edo eskuratzeko erabakiak eta ustiapen-jarduerak barne hartuta. Segurtasun-eskakizunak eta finantzaketa-beharrak IKT proiektuetarako plangintzan, eskaintza-eskaeran eta lizitazio-pleguetan identifikatu eta sartu behar dira.

Ermuko Udalak prest egon behar du gorabeherak prebenitzeko, antzemateko, horiei erantzuteko eta horietatik errekupeatzeko, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuari jarraikiz.

3. IRISMENA

Segurtasun Politika hau nahitaez bete beharko dute **Ermuko Udaleko** kide guztiek, irismenaren arabera:

- **Ermuko Udalak** ematen dituen zerbitzu guztien euskarri diren informazio-sistemak, 311/2022 Errege Dekretuaren xedapenen eta indarrean dagoen aplikagarritasun-adierazpenaren arabera.





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA	BERTSIOA	DATA
ENS.01	1.0	08/05/2025

4. XEDEA

Ermuko Udalaren xedea da hiriaren eta bertan bizi diren pertsonen behar, itxaropen, erronka eta aukerei erantzungo dieten zerbitzu publikoak eskaintzea, tokiko esparrutik. Sareetan lan egiten dugu, finantzaketa lortzeko eta ezagutza sortu eta partekatzeko. Gainera, gizarte-garapena eta ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuna aktiboki sustatzen ditugu. Horretarako, taldean lan egiten dugu, kalitatea, metodoa, efizientzia eta berrikuntza, errespetua, entzuketa eta gardentasuna aintzat hartuz, erakundeko pertsonen hazkunde integrala bultzatzeko.

5. ARAU-ESPARRUA

Informazioaren segurtasunari dagokionez, araudi hau hartzen da oinarritzko erreferentziazat:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena.
- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.
- 2016/679 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EB Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
- 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoen esparruan Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala arautzen duena.
- 1671/2009 Errege Dekretua, azaroaren 6koa, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (1999ko apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatu zuen).
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 9/2017 Legea, 2017ko azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentzaruen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoko informazioa berrerrabiltzeari buruzkoa.
- 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jarduketara eta funtzionamendu-erregelamendua onartzen duena.
- 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoari buruzkoa.
- 6/2020 Legea, abenduaren 11koa, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen zenbait alderdi arautzen dituen.





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA	BERTSIOA	DATA
ENS.01	1.0	08/05/2025

- 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2/2018 Errege Lege Dekretua, apirilaren 13koa, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina —1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua— aldatzen duena eta Espainiako ordenamendu juridikoan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/26/ Zuzentaraua (EB) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko irailaren 13ko 2017/1564 Zuzentaraua (EB) txertatzen dituena.
- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuei buruzkoa.
- 9/2014 Legea, maiatzaren 9koa, Telekomunikazioei buruzkoa.
- Ebazpena, 2016ko urriaren 13koa, Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzarena, Segurtasun Jarraibide Teknikoa onartzen duena, Segurtasun Eskema Nazionalarekin bat.
- Ebazpena, 2016ko urriaren 7koa, Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzarena, Segurtasunaren Egoerari buruzko Txostenaren Segurtasun Jarraibide Teknikoa onartzen duena.
- Ebazpena, 2018ko martxoaren 27koa, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzarena, Informazio Sistemen Segurtasunaren Auditoretzako Segurtasun Jarraibide Teknikoa onartzen duena.
- Ebazpena, 2018ko apirilaren 13koa, Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzarena, Segurtasun-intzidentziak Jakinarazteko Segurtasun Jarraibide Teknikoa onartzen duena.
- 910/2014 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuan transakzio elektronikoak egiteko identifikazio elektronikoari eta konfiantzako zerbitzuei buruzkoa (Europako eIDAS Erregelamendua).
- 1671/2009 Errege Dekretua, azaroaren 6koa, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa.
- 25/2007 Legea, urriaren 18koa, komunikazio elektronikoen eta komunikazio-sare publikoen datuak gordetzei buruzkoa.
- 1553/2005 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, nortasun-agiri nazionala eta horren sinadura elektronikoko ziurtagiriak arautzen dituena.
- 56/2007 Legea, abenduaren 28koa, informazioaren gizartea bultzatzeko neurriei buruzkoa.
- 14/2019 Errege Lege Dekretua, urriaren 31koa, administrazio digitalaren, sektore publikoko kontratazioaren eta telekomunikazioen arloan segurtasun publikoko arrazoiengatik presako neurriak hartzen dituena.

6. OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Oinarrizko printzipioak funtsezko segurtasun-jarraibideak dira, informazio-aktiboen erabilerarekin lotutako edozein jardueratan beti kontuan hartu beharrekoak. Honako hauek finkatu dira:





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

6.1 SEGURTASUNA PROZESU INTEGRAL GISA

Segurtasuna prozesu integral gisa ulertuko da, IKT sistemekin zerikusia duten elementu tekniko, giza elementu, antolaketa-elementu eta elementu material guztiek osatua, alde batera utzita jarduketa puntual edo tratamendu koiuntural oro. Informazioaren segurtasuna ohiko jardunbidetzat hartu behar da, eta IKT sistemen hasierako diseinutik bertatik agertu eta aplikatu behar da.

6.2 ARRISKUETAN OINARRITUTAKO SEGURTASUNAREN KUDEAKETA

Arriskuen analisia eta kudeaketa segurtasun-prozesuaren funtsezko zatia izango da. Arriskuen kudeaketak ingurunea kontrolatuta izatea ahalbidetuko du, eta arriskuak maila onargarrietara murriztuko ditu. Arrisku-maila horiek murrizteko segurtasun-neurriak hedatuko dira, oreka ezarrita datuen izaeraren eta tratamenduen artean, inpaktuaren eta arriskuen probabilitatearen artean eta segurtasun-neurrien eraginkortasunaren eta kostuaren artean. Datuen segurtasunaren inguruko arriskua ebaluatzean, datu pertsonalen tratamenduaren ondoriozko arriskuak hartu behar dira kontuan.

6.3 PREBENTZIOA, DETEKZIOA, ERANTZUNA ETA KONTSERBAZIOA

6.3.1 Prebentzioa

Ermuko Udalak saihestu egin behar du —edo, behintzat, ahal den neurrian prebenitu— segurtasun-gorabeheren ondorioz informazioa edo zerbitzuak kaltetzea. Horretarako, SENak (Segurtasun Eskema Nazionalak) zehaztutako gutxieneko segurtasun-neurriak ezarriko ditu, bai eta mehatxuen eta arriskuen bilakaeraren bidez identifikatutako edozein kontrol gehigarri ere. Kontrol horiek argi eta garbi zehaztuta eta dokumentatuta egongo dira.

Politika betetzen dela bermatzeko, hau egin behar du Teknologia Zerbitzuak:

- Sistemak baimendu, jardunean hasi aurretik.
- Segurtasuna aldizka ebaluatu, ohiko konfigurazio-aldaketen ebaluazioak barne hartuta.
- Hirugarrenen aldizkako berrikuspena eskatu, ebaluazio independentea lortzeko.

6.3.2 Detekzioa

Ermuko Udalak bere informazio-sistemen eragiketa-kontrolak ezarri ditu, zerbitzuen prestazioan anomaliak detektatzeko eta horren arabera jarduteko, SENaren 10. artikulua (etengabeko zaintza eta aldizkako berrebaluazioa) xedatutakoari jarraikiz. Aurrez normaltzat ezarri diren parametroetan (SENaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera, defentsa-lerroetan) desbideratze esanguratsu bat gertatzen denean, beharrezko detekzio-, analisi- eta jakinarazpen-mekanismoak ezarriko dira arduradunengana erregulartasunez irits daitezen.

6.3.3 Erantzuna

Ermuko Udalak:

- Segurtasun-gorabehereri eraginkortasunez erantzuteko mekanismoak ezarri ditu.
- Harremanetarako guneak izendatu ditu beste sail edo erakunde batzuetan antzemandako gorabehereri buruzko komunikazioetarako.





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA	BERTSIOA	DATA
ENS.01	1.0	08/05/2025

- Gorabeherarekin lotutako informazioa trukatzeko protokoloak ezarri ditu. Horrek barne hartzen ditu Larrialdiei Erantzuteko Taldeekiko (CERT) komunikazioak, bi noranzkoetan.

6.3.4 Berreskuratzea

Zerbitzuen erabilgarritasuna bermatzeko, **Ermuko Udalak** zerbitzurik kritikoenak berreskuratzea bermatzeko beharrezkoak diren baliabide eta teknikak ditu.

6.4 DEFENTSA-LERROAK

Informazio-sistemak hainbat geruzaz osatutako babes-estrategia izango du. Horrela, geruzetako bat arriskuan badago, saihestu ezin izan diren gorabeherei aurre egiteko ekintza egokia garatu ahal izango da, sistema osoa arriskuan jartzeko probabilitatea murrizteko eta azken inpaktua arintzeko.

Neurri fisikoek, logikoek eta antolamendukoek osatutako defentsa-lerroak egongo dira,

6.5 ETENGABEKO ZAINZA ETA ALDIZKAKO BERREBALUAZIOA

Ermuko Udalak etengabeko zaintza egingo du jarduera edo portaera anomaloak antzemateko eta horiei erantzun egokia emateko.

Aktiboen segurtasun-egoera etengabe ebaluatzeak aukera emango dio **Ermuko Udalari** aktiboen bilakaera neurtzeko, ahuleziak antzemateko eta konfigurazio-akatsak identifikatzeko. **Ermuko Udalak** segurtasun-neurriak aldian-aldian berrebaluatu eta eguneratuko ditu, eta horien eraginkortasuna arriskuen eta babes-sistemen bilakaerara egokituko du. Beharrezkoa bada, segurtasuna birplanteatu ere egin ahal izango du.

6.6 ERANTZUKIZUNAK BEREIZTEA

Ermuko Udalak erantzukizunak bereizteko beharra hartuko du kontuan bere informazio-sisteman, ahal den guztietan. Segurtasun Politika honetan zehar zehaztuko dira arduradun bakoitzaren eskuduntzen xehetasuna, koordinazio-mekanismoak eta gatazken ebazpena.

7. GUTXIENEO ESKAKIZUNAK

Informazioaren Segurtasun Politika honek osatu egiten ditu **Ermuko Udalak** datu pertsonalak babesteko dituen gainerako segurtasun-politikak.

Informazioaren Segurtasun Politika garatzeko, gutxieneko eskakizun hauek aplikatuko dira:

- Segurtasun-prozesua antolatu eta ezartzea, **Politika honen 8. atalean** zehaztutako antolamendu-esparruaren arabera.
- Arriskuen analisia eta kudeaketa, **PO.SEG.01 Arriskuen kategorizazioa eta analisia** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Pertsonen kudeaketa, **PO.SEG.11 Langileen kudeaketa eta prestakuntza** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Profesionaltasuna, **PO.SEG.11 Langileen kudeaketa eta prestakuntza** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA	BERTSIOA	DATA
ENS.01	1.0	08/05/2025

- Sarbideak baimendu eta kontrolatzea, **PO.SEG.05 Sarbideen kontrola** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Instalazioen babesa, **PO.SEG.07 Segurtasun fisikoa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Produktuak eskuratzea, **PO.SEG.03 Hornitzaileen kudeaketa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Segurtasun lehenetsia, **PO.SEG.12 Ekipamenduen babesa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Sistemaren osotasuna eta eguneratzea, **PO.SEG.12 Ekipamenduen babesa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Biltegiaritutako eta iragaitzazko informazioaren babesa, **PO.SEG.08 Informazioaren babesa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Interkonektatutako beste informazio-sistema batzuen aurreko prebentzioa, **PO.SEG.14 Komunikazioen eta zerbitzuen segurtasuna** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Jardueraren erregistroa, **PO.SEG.02 Jarduera-erregistroen kudeaketa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Segurtasun-gorabeherak, **PO.SEG.06 Gorabeheren kudeaketa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Jardueraren jarraipena, **PO.SEG.09 Inpaktu-analisia** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.
- Segurtasun-prozesuaren etengabeko hobekuntza, **PO.SEG.15 ISKSaren (Informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistemaren) kudeaketa** prozeduran aurreikusitakoaren arabera.

8. SEGURTASUNAREN ANTOLAMENDUA

Ermuko Udalean Segurtasun Politika ezartzeko, erakundeko kide guztiek ulertu behar dituzte beren betebeharrak eta erantzukizunak, betetzen duten lanpostuaren arabera. Informazioaren Segurtasun Politikaren zati diren aldetik, berariazko rol bakoitzak —erabiltzaile zehatzetan pertsonalizatuta— bere ekintzen inplikazioak eta esleitura dituen erantzukizunak ulertu behar ditu. Atal honetan identifikatu eta zehazten dira, honela multzokatuta:

- a) Informazioaren Segurtasun Batzordea
- b) Zerbitzu-arduradunak
- c) Informazio-arduradunak
- d) Informazioaren segurtasun-arduraduna
- e) Sistema-arduraduna
- f) Datuak babesteko ordezkaria

Hurrengo ataletan, rol horietako bakoitzari esleitutako eginkizunak zehazten dira.

8.1 INFORMAZIOAREN SEGURTASUN BATZORDEA

Informazioaren Segurtasun Batzordeak informazioaren segurtasuna koordinatzen du **Ermuko Udalean**. Batzordea lehenago aipaturiko figurek osatzen dute.





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

Informazioaren Segurtasun Batzordeak funtzio hauek ditu:

- Informazioaren eta erantzukizun nagusien Segurtasun Politika berrikusi eta onartzea.
- Informazioaren segurtasunaren estrategia eta plangintza zehaztu eta bultzatzea, eta aurrekontu eta baliabide zehatzen esleipena proposatzea.
- Informazio-aktiboak mehatxu nagusien eraginpean jartzearen ondoriozko aldaketa esanguratsuak gainbegiratu eta kontrolatzea, eta aktibo horien segurtasuna bermatzeko kontrolak eta neurriak garatu eta ezartzea.
- Informazioaren Segurtasuna hobetzeko ekimen nagusiak onartzea.
- Alderdi hauek gainbegiratu eta jarraitzea:
 - Informazioaren Segurtasuneko gorabehera nagusiak
 - Jarraipen-planak egin eta eguneratzea
 - Segurtasun Politikak bete eta hedatzea
- Arduradunen artean agertzen diren erantzukizun-gatazkak konpontzea, eta erabakitze behar besteko aginpiderik ez duenean, kasua goiko estamentuetara igotzea.

8.1.1 Informazio-arduraduna

- Kudeatutako informazioaren segurtasun-eskakizunak ezartzeko ahalmena du. Informazio horrek datu pertsonalak baditu, kontuan hartu beharko dira datuak babesteko legeriaren ondoriozko eskakizunak.
- Informazioaren segurtasun-mailak zehazten ditu.

8.1.2 Zerbitzu-arduraduna

- Ematen diren zerbitzuen segurtasun-baldintzak ezartzeko ahalmena du.
- Zerbitzuaren segurtasun-mailak zehazten ditu.

8.1.3 Informazioaren segurtasun-arduraduna

Informazioaren segurtasun-baldintzak zehazteaz, koordinatzeaz, ezartzeaz eta betetzen direla egiaztatzeaz arduratzen da, erakundearen helburu estrategikoei jarraikiz.

Segurtasun-arduraduna harremanetarako pertsona edo puntua **(PoC)** da.

Funtzio hauek ditu informazioaren segurtasun-arduradunak:

- Segurtasun Batzordearen bilerak zuzentzea, eta horien jardura eta erabakiak ezagutarazi, proposatu eta koordinatzea.
- **Ermuko Udalaren** informazioaren segurtasunerako eta datuen babeserako neurriak koordinatu eta kontrolatzea.
- Honako hauek ezartzen direla gainbegiratzeko, mantentzeko, kontrolatzeko eta betetzen direla egiaztatzea:





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA	BERTSIOA	DATA
ENS.01	1.0	08/05/2025

- Segurtasun Batzordeak zehaztutako informazioaren segurtasun-estrategia.
- **Ermuko Udalaren** Informazioaren Segurtasun Politikan eta hura garatzeko araudian jasotako arauak eta prozedurak.
- **Ermuko Udaleko** segurtasun informatikoko gorabeherak gainbegiratzea (azken arduraduna den aldetik).
- **Ermuko Udalaren** Informazioaren Segurtasun Politikan eta hura garatzeko araudian jasotako arau eta prozedurak **Ermuko Udalean** zabaltzea, bai eta **Ermuko Udal** osoak informazioaren segurtasunaren arloan dituen eginkizun eta betebeharrak ere.
- Segurtasun Politika, garapen-araudia eta aplikatu beharreko legeak (adibidez, DBEOa) zenbateraino betetzen diren egiaztatze behar diren barne- edo kanpo-auditoretzak gainbegiratu eta haietan laguntzea.
- Informazioaren segurtasunari buruzko aholkuak ematea **Ermuko Udaleko** arlo operatiboei.

8.1.4 Sistema-arduraduna

Ermuko Udalaren jardueraren euskarri diren informazio-sistemen aktibo eta zerbitzuak bermatzeko neurriak betetzen direla ziurtatzeko azken arduraduna da, **Ermuko Udalaren** helburu estrategikoekin bat.

Informazioaren sistema-arduradunak funtzio hauek ditu:

- **Ermuko Udalaren** aktiboen segurtasunaren kudeaketa pertsonifikatzeaz arduratzen diren arduradun tekniko informatikoak hautatu eta horiei funtzioak eta betebeharrak ezartzea, zehaztutako segurtasun-estrategiari jarraikiz.
- Arduradun tekniko informatikoen jardura ezartzea, dagozkien segurtasun-inguruneetan.
- **Ermuko Udalaren** informazio-sistemen aktiboen inbentarioa eguneratzen dela bermatzea.
- Inbentariatutako aktibo bakoitzak segurtasun informatikoko maila egokia duela ziurtatzea, eta beharrezko babes-maila bermatzeko kontrol eta neurrien garapen, ezarpen, egokitzapen eta eragiketa zuzena koordinatzea.
- Sistema berriak ezartzean eta daudenak aldatzean, **Ermuko Udalak** ezarritako segurtasun-eskakizunak betetzen direla bermatzea.
- Segurtasunaren egoera monitorizatzeko prozesuak eta kontrolak ezartzea, sortzen diren gorabeherak detektatzeko eta horien ikerketa eta konponketa koordinatzeko.
- Informazio-sistemen segurtasun-gidalerroak eta -politikak eta horiei lotutako araudiak mantendu eta eguneratzea.

8.1.5 Datuak babesteko ordezkaria

DBEOaren 39.artikuluaren aurreikusitakoaren arabera, honako hauek dira datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak:





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA	BERTSIOA	DATA
ENS.01	1.0	08/05/2025

- Dagozkien betebeharrei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea tratamenduaren erantzuleari edo arduradunari eta tratamenduaz arduratzen diren langileei, DBEOarekin eta Europar Batasuneko edo estatu kideetako datuak babesteko beste xedapen batzuekin bat.
- DBEOaren xedapenak, Europar Batasuneko edo estatu kideetako datuak babesteko gainerako xedapenak eta datu pertsonalak babesteko tratamenduaren erantzulearen edo arduradunaren politikak betetzen dela gainbegiratzea, barne hartuta erantzukizunen esleipena, tratamendu-eragiketetan parte hartzen duten langileen kontzientziazioa eta prestakuntza, eta dagozkion auditoretzak.
- Datuen babesaren gaineko inaktuaren ebaluazioari buruz eskatzen zaion aholkularitza eskaintzea eta horren aplikazioa gainbegiratzea.
- Kontrol-agintaritzarekin elkarlanean aritzea.
- Kontrol-agintaritzaren harremanetarako pertsona izatea, tratamenduari dagozkion gaietarako eta, hala badagokio, beste edozein gairi buruzko kontsultak egiteko.
- Tratamendu-eragiketei lotutako arriskuei behar bezalako arreta jarritz beteko ditu bere eginkizunak, tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak kontuan hartuta.

8.1.6 Idazkaritza Teknikoa

- Bileren gai-zerrenda prestatzea, bilera horiek deitzea eta informazioaren segurtasunerako batzordearen saioak dinamizatzea.
- Akordioak eta zereginak aktan jasotzea, arduradunekin eta epeekin.
- Segurtasuneko arduradunarekin lankidetzan aritzea Informazioaren Segurtasun Politikan eta garapen-araudian jasotako arauak eta prozedurak Udalean bertan zabaltzeko, bai eta langile guztiek informazioaren segurtasunaren arloan dituzten eginkizun eta betebeharrei dagokienez ere.
- Segurtasun Politika, garapen-araudia eta aplikatzekoak diren legeak, hala nola DBEO, zenbateraino betetzen diren egiaztatzeko beharrezkoak diren barneko edo kanpoko auditoretzetan laguntzea.

8.2 IZENDATZEKO PROZEDURAK

Erantzukizun hauek izendatu dira:

- Zerbitzu-arduraduna:
 - Rosalía Herrera. Zuzendari orokorra
 - Nagore Domínguez. Alorreko zuzendaria
 - Josu Ansola. Alorreko zuzendaria
 - David Henares. Alorreko zuzendaria
 - Javier García Pizarro. Udaltzaingoko burua
 - Leire Moya. Alorreko zuzendaria
 - Josu Macías. Kiroletako arduraduna
 - Jon Ajuria (Kontu-hartzailea) / Mónica López (Diruzaina)
- Informazio-arduraduna: Zerbitzu-arduradun rola duten pertsona berak.
- Segurtasun-arduraduna: Antonio Bernal Calles. Teknologiako arduraduna
- Sistema-arduraduna: Juan Agustín Villafranca. Udal idazkaria
- Datuak babesteko ordezkaria: Montserrat Gutiérrez Aranbarri
- Idazkaritza Teknikoa: Montserrat Gutiérrez Aranbarri. Kalitate teknikaria





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

Izendapenak 2 urtean behin berrikusiko dira, edo posturen bat hutsik geratzen denean.

8.3 GATAZKAK KONPONTZEA

Espainiako herri-administrazioetan indarrean dagoen hierarkia-printzipioaren arabera, erakundeko arduradunen eta/edo zerbitzuen arteko gatazkarik izanez gero, Segurtasun Batzordeak ebatzi beharko du. Horrelakorik ezean, alkatearen erabakia nagusituko da.

Eztabaida horiek ebazterakoan, kontuan hartuko dira beti datu pertsonalak babestearen ondoriozko eskakizunak.

9. INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA BERRIKUSTEA

Segurtasun Batzordearen eginkizuna izango da Informazioaren Segurtasun Politika urtero berrikustea, eta politika hori berrikusteko edo mantentzeko proposamena egitea. Politika zabaldu egingo da, eragindako alderdi guztiek ezagutu dezaten.

10. DATU PERTSONALAK

Ermuko Udalak datu pertsonalak tratatuko ditu.

Ermuko Udalaren informazio-sistema guztiek Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruz indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen segurtasun-mailak beteko dituzte. Araudi hori ikusgai dago Informazioaren Segurtasun Politikaren **5. Arau-esparrua** atalean.

11. ARRISKUEN KUDEAKETA

Informazioaren Segurtasun Politika honi lotutako sistema guztiei arriskuen ebaluazio egin behar zaie aldian-aldian. Analisi hori errepikatuko da:

- Erregularitasunez, urtean behin gutxienez.
- Kudeatu beharreko informazioa aldatzen denean.
- Ematen diren zerbitzuak aldatzen direnean.
- Segurtasun-gorabehera larri bat gertatzen denean.
- Ahulezia larrien berri ematen denean.

Arrisku-analisiak harmonizatzeko, Segurtasun Batzordeak erreferentziazko balorazio bat ezarriko du, kudeatu beharreko informazio-mota desberdinetarako eta ematen diren zerbitzuetarako. Segurtasun Batzordeak baliabideen eskuragarritasuna dinamizatuko du sistemen segurtasun-beharrei erantzuteko, eta inbertsio horizontalak sustatuko ditu.

12. DOKUMENTAZIOA EGITURATZEA

PO.SEG.16 ISKSaren kudeaketa prozeduran zehazten dira **Ermuko Udalaren** ISKSaren segurtasun-dokumentazioa egituratu, kudeatu eta eskuratzeko jarraibideak.

Informazioaren segurtasunaren arloko arau-esparru bat ezarri da, hainbat mailatan egituratua, erakundearen Segurtasun Politikan ezarritako printzipioek eta helburuek berariazko garapena izan dezaten:

- Lehen maila: Informazioaren Segurtasun Politika, alkateak onartu behar duena, Segurtasun Batzordeak proposatuta.





ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA	BERTSIOA	DATA
ENS.01	1.0	08/05/2025

- Bigarren maila: alkateak onartutako informazioaren segurtasun-araudia. Bertan, informazio-sistemak behar bezala erabiltzeko arauak ezarriko dira.
- Hirugarren maila: informazioaren segurtasun-prozedurak. Horietan, prozesu jakin batzuk egiteko modu zuzena zehaztuko da, segurtasuna eta informazioa une oro babesteko. Prozedura horiek Segurtasun Batzordeak onartu behar ditu.
- Laugarren maila: segurtasun-estandarrak, jarraibide teknikoak, jardunbide egokiak, gomendioak, gidak, prestakuntza-ikastaroak, aurkezpenak eta abar. Segurtasun Batzordeak onartu behar ditu.

ISKSa osatzen duten dokumentuak euskarri digitalean daude, lanpostuarekin lotutako eginkizunak betetzeko behar dituzten langile guztien eskura. Kontsultatzeko eskuragarri egongo da, baina ezin izango da aldaketarik egin.

13. INFORMAZIOAREN KALIFIKAZIOA

Ermuko Udalaren informazioa kalifikatzeko, Espainia kide duten nazioarteko lege eta itunetan legez ezarritakoa eta, gai sailkatuen kasuan, aplikatu beharreko araudia hartuko dira kontuan.

Bai sistemak erabiltzen duen informazio bakoitzaren arduraduna, bai informazioa kalifikatzeko irizpideak —beharrezko segurtasun-maila zehaztuko dutenak— **PO.SEG.10 Informazioaren sailkapena** prozeduran ezarri dira.

14. LANGILEEN BETEBEHARRAK

Ermuko Udalaren informazio-sistemen erabiltzaile guzti-guztiak dira informazio-aktiboen segurtasunaren eta horiek behar bezala erabiltzearen erantzule, betiere beren eskumen profesionalen eta akademikoen arabera.

Ermuko Udaleko kide guztiek Informazioaren Segurtasun Politika eta Segurtasun Araudia ezagutzeko eta betetzeko betebeharra dute, eta Segurtasun Batzordearen ardura da informazioa dagokienengana iristeko behar diren baliabideak jartzea.

Ermuko Udaleko kideek gutxienez urtean behin jasoko dute informazioaren segurtasunari buruzko prestakuntza. Etengabe kontzientziazteko programa bat ezarriko da, **Ermuko Udaleko** kide guztiei arreta emateko, batez ere sartu berriei.

IKT sistemak erabiltzeko, horiekin lan egiteko edo administratzeko erantzukizuna duten pertsonak prestakuntza jasoko dute sistemak segurtasunez erabiltzeko, beren lana egiteko behar duten neurrian. Prestakuntza derrigorrezkoa izango da langilearentzat, erantzukizun bat bere gain hartu aurretik, bai lehenengo esleipena badu, bai lanpostuz edo lanpostu berean erantzukizunez aldatu behar badu.

14.1 EZ-BETETZEA

Informazioaren Segurtasun Politika hau betetzen ez bada, bidezko diziplina-neurriak hartu ahal izango dira, dagozkion legezko erantzukizunak alde batera utzi gabe.

15. HIRUGARREN ALDERDIAK

Zerbitzu bat emateko **Ermuko Udalarekin** lankidetzan diharduten kanpoko enpresa eta erakundeek, baldin eta **Ermuko Udalaren** edo bere erabiltzaileen informazio-aktiboak zuzenean edo zeharka (norberaren edo besteren sistemetan) eskuratu edo kudeatzen badituzte, **Ermuko**





ERMUKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE ERMUA

INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKA POLÍTICA DE SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN

KODEA

ENS.01

BERTSIOA

1.0

DATA

08/05/2025

Udalaren sistemen eta aktiboen segurtasuna bermatzeko erantzukizuna partekatuko dute, eta, beraz, betebeharrak izango dituzte:

- **Ermuko Udalari** emandako zerbitzuei buruzko informaziorik ez zabaltzea, horretarako berariazko baimenik izan ezean.
- Politika honetan ezarritako betebeharren inguruan informatzea eta langileen artean informazio hori zabaltzea.
- DBEOak ezarritako neurriak aplikatzea **Ermuko Udalaren** ardurapeko datu pertsonalen tratamenduan, baldin eta datu horiek zerbitzua ematean tratatzen badira.
- **Ermuko Udalari** emandako zerbitzuekin lotutako segurtasuna kudeatzeko prozedurak aplikatzea. Bereziki, erabiltzaileen kudeaketarekin lotutako prozedurak aplikatu behar dira, hala nola alten eta baje jakinarazpenak, erabiltzaileen identifikazioa eta pasahitzen kudeaketa, politika honetan eta aplikatu beharreko araudi erregulatzailan deskribatutakoaren arabera.
